

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzeko udal araudiaren behin betiko onespena

Lapuebla de Labarcako udalbatzak, 2018ko maiatzaren 17ko ohiko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion etxez etxeko laguntza zerbitzuaren udal erregelamenduari. Hari zengokion iragarkia ALHAOn (62. zenbakia; 2018ko maiatzaren 30a) eta udal iragarki taulan argitaratu zen eta, aldi berean, hogeita hamar egun baliodenez jarri zen jendaurrean, erreklamazioak eta oharrak aurkezteko.

Jendaurreko epealdi hori igaro eta inolako erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez delarik, toki araubidearen oinarrien Legeak 49. artikuluan xedatzen du erabakia, ordura arte behin-behinekoa dena, behin betiko onartutzat eman beharko dela. Legezko ezarpen hori osatzen da legezko testu berak bere 70. artikulua 2. zenbakian jasotakoarekin. "Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko onartu eta ALHAOn oso-osorik argitaratu ondoren eta apirilaren 2ko Legeak, toki araubidearen oinarrii buruzkoak, bere 65.2. artikuluan ezarritako epea gaingitu ondoren; hala, indarrean sartzen denetik aplikagarria izango da eta indarrean jarraituko du haren aldarazpena edo beren beregiko indargabetzea erabakitzen ez den bitartean. "

Hona hemen ordenantzaren testu osoa:

LEHENENGOTITULUA

1. artikulua. Xedea

Erregelamendu honen xedea da Lapuebla de Labarcako udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eskaintza arautzea.

2. artikulua. Eragin eremua

Arautegi honetan arautzen den zerbitzua Lapuebla de Labarcako udalerrian garatuko da.

3. artikulua. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren definizioa

Etxez etxeko laguntza zerbitzua prebentzio eta laguntza zerbitzua da; helburua erabiltzaileari laguntza ematea da, bere etxean jarrai dezan, etxean bertan ondo moldatzea eta komunitatearen ingurunean integratzea posible egingo duen laguntza emanez, hain zuzen ere, isolamendu egoerak saihestuz.

4. artikulua. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren helburuak

Zerbitzu honen helburuak honako hauek dira:

a) Autonomia pertsonala mantentzea edo hobetzea, egoera larriagotzea prebenitzea eta erabiltzaileen autonomiaren galera konpentsatzea, laguntza partziala edo osoa emanez, eguneroko oinarrizko jarduerak, zaintzarako beharrezkoak diren jarduerak edo eguneroko bizitzaren jarduera instrumentalak egin ahal izan ditzan.

b) Bideragarria denean, pertsonak bere etxean ahalik eta denbora gehien jarraitzea ahalbidetzea, onargarria den bizi kalitateari eutsiz eta ostatu zerbitzu batean edo egoitza batean sartzea atzeratuz edo ekidinez.

c) Erabiltzaileen segurtasun sentimendua sendotzea.

d) Gizarte eta familia sarea osatzen duten zaintzaileei laguntza eskaintzea eta haien zaintza zereginaren liberazio partziala ahalbidetzea, haien garapen pertsonal, profesional eta sozialari begira egokiak diren baldintzak izan ditzaten.

e) Zaintzaile nagusia, erabiltzailea zaindu ohi duen zaintzailea, tarteka ordeztea, aldi batean ez badago.

f) Beste zerbitzu batzuen esku hartzea behar duten premia egoerak antzematea.

g) Erabiltzailea komunitatearen ingurunean integratzea erraztea, isolamendu edo bazterketa egoerak saihesteko.

h) Adingabeen zaintza osatzea, ezinezkoa baldin bada gurasoek edo tutoreek zaintza modu egokian ematea.

i) Familien bizikidetzeta giroa hobetzea krisi egoeretan: faktore psiko-fisiko edo gizarte faktoreek eragindakoak eta horien ondoriozko arriskuak saihestea.

BIGARREN TITULUA. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

I. KAPITULUA. ZERBITZUKO ETA ZERBITZUTIK KANPOKO PRESTAZIOAK ETA EZAUGARRIAK

5. artikulua. Emango diren eta emango ez diren zerbitzuak

5.1. Honako zerbitzu hauek eman behar direla ulertuko da:

I. Argibideak: erabiltzaileek eskubide eta zerbitzuari buruzko aski ezagutza egokia garaiz eta behar bezala jaso ahal izatea ahalbidetzea.

II. Jarraipenaren balioespena: arreta pertsonalizatuko planaren aldizkako ebaluazioak egitea, sakontasun maila handiagoarekin edo txikiagoarekin.

III. Etxeko arreta: prestazio honen bitartez pertsonak laguntza jasotzen dute, laguntza partziala edo erabatekoa, eguneroko jarduera instrumentalak egiteko, bereziki elikadurari, jantzeari eta bizi diren etxebizitzako instalazioen mantentze lanei lotutakoak; hala, antolamendua ere erraztu egiten da, eta, hala badagokio, lanok egiteko beharrezko trebetasunetan trebatzeko laguntza ere jaso ohi da.

a) Elikadurari lotutakoak:

– Laguntzea janaria prestatzen / janariak planifikatzen eta prestatzen, erabilitako elementuak bildu eta garbitzea barne

– Elikagaiak erostea

– Erabilitako tresnak garbitzea eta lehortzea

b) Jantzeari lotutakoak:

– Laguntzea arropa etxean garbitzen / arropa etxean garbitzea

– Arropa esekitzea

– Arropa birpasatzea

– Arropa antolatzea eta gordetzea

– Arropa etxean lisatu eta tolestea.

– Laguntzea arropa erosten / arropa erostea

– Erabilitako elementu guztiak prestatzea eta gordetzea

c) Etxebizitzako instalazioen mantentze lanei lotutakoak:

- Etxea ordenatuta izatea
- Azalerak produktu egokiekin garbitzea
- Erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea
- Hautsa kentzea
- Lurra urez garbitzea eta xurgagailua pasatzea
- Gortinak eta leihoak irekitzea, aireztatzea
- Komuna garbitzea
 - Sukaldea garbitzea
 - Leihoetako kristalak garbitzea
 - Gainbegiratzea eta zarama jaistea.
 - Ohea egitea eta oheko arropa aldatzea; oheko arropa zikina kentzea.
 - Jabeen erkidegoaren espazioak garbitzea.

IV. Arreta pertsonala: prestazio honen bitartez, erabiltzaileek egunerokotasuneko oinarrizko jarduerak egiteko laguntza jasotzen dute, ingurunearekin lotura izateko jarduera instrumentalak egiteko laguntza eta familia eta komunitatearen ingurunera sarbidea izateko laguntza, laguntza partziala edo erabatekoa. Halaber, hala badagokio, jarduera horietan trebatzeko laguntza ere jasotzen dute.

– Garbiketa eta higiene pertsonala, arropa pertsonala eta oheko arropa aldatzea barne (laguntza teknikoak erabiltzea barne, hala badagokio, azazkalak zaintzea, bizarra moztea, ilea garbitzea, azala hidratatzea, ahoko higienea eta arropa aldatzea).

- Arropa janzteko eta erantzeko laguntza
- Eguneroko arropa prestatzea
- Jateko laguntza
- Edateko laguntza
- Janaria berotzea
- Erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea, bai garbiketa eta higiene pertsonalean erabilitakoak, bai jaten eta edaten laguntzeko erabilitakoak.

a) Mugitzeari eta ingurunean moldatzeari lotutakoak:

– Altxatzeko, ohean sartzeko eta jarlekutik altxatzeko laguntza, laguntza teknikoak erabiliz, hala badagokio.

– Etxe barruan mugitzeko laguntza, laguntza teknikoak erabiliz, egonez gero (komunera joateko laguntza, logelen artean mugitzeko laguntza).

b) Osasunari eusteari lotutakoak:

– Sendagileak adierazitako aho bidezko sendagaiak erostea, gainbegiratzea eta hartzearen jarraipena egitea.

Oro har, aurreko betebeharren ondoriozko edo horietatik eratorritako elementu edota jarduketak prestatzeko alde aurreko jarduketa guztiak.

V. Laguntze soziala: prestazio honen bitartez, erabiltzaileak, langile kualifikatu batekin elkarrekintzan, harreman lagungarri batean parte hartzen du; horri esker, pertsona horren gizarte integrazioa eta modu autonomoan moldatzea hobetzen da.

- Laguntzea izaera pertsonaleko kudeaketa lanetan, aski familia babes ez dagoenean.
- Hitzordu medikoak kontrolatzea eta jarraipena egitea, aski familia babes ez dagoenean.
- Laguntzea etxetik kanpoko joan-etorrietan, baina beti etxe inguruan (garraioa, eguneko zentroak, osasun zentroak, komunitatearen ekipamenduak etab.).

VI. Beste jarduketa osagarri edo salbuespen jarduketa batzuk:

Inguruabar bereziei erreparatuta, eta izaera murriztailearekin, zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbestekotzat jotako beste jarduketa batzuk ere eskaini ahalko dira:

- Zaintzaileen atsedena
- Ibilaldiak
- Garbiketa lan orokorrak etxeetan, zerbitzu normalizatua ezarri aurretik higie arazo larriak egonez gero.
- Inguruabar bereziei erreparatuta, zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbestekotzat jotako beste jarduketa batzuk ere eskaini ahalko dira.

5.2. Honako prestazio hauek zerbitzutik kanpo daudela ulertuko da:

- Etxe berean bizi diren beste pertsona batzuei zuzendutako laguntza pertsonala, zerbitzuaren erabiltzaileak ez badira.
- Etxeko laguntza jarduketak, etxean lan horiek egiteko gaitasuna daukaten pertsonak bizi direnean.
- Osasun izaerako jarduketak, jarduketa horiek egiteko langileek berriazko prestakuntza behar badute (injekzioak jartzea, zundak erabiltzea, ultzera eta eskara tratamenduak, eta medikazioa ematea, horretarako ezagutza zehatza eta pareko beste batzuk beharrezkoak badira).
- Etxean konponketa garrantzitsuak egitea (margotzea, papera jartzea, etab.).
- Lehen atalean edo 6) atalean aipatu ez diren garbiketa lanak.
- Zerbitzu teknikoek prestatutako txostenean aurreikusi ez diren lan guztiak; beste administrazio batzuen eskumenen barruan dauden betebeharrak.

6. artikulua. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren ezaugarriak

Etxez etxeko laguntza zerbitzua, oro har, onuraduna bizi den etxean emango da, Lapuebla de Labarcako udalerrriaren barruan.

Onuraduna familia barruko txandakatze egoeran baldin badago, zerbitzua etxe batean edo gehiagotan eman ahalko da, erregelamendu honen 9.1 artikuluan xedatutako inguruabarretan.

1) Arreta emateko egunak

- Oro har, zerbitzua astelehenetik ostiralera emango da, preskripzio teknikoaren arabera.
- Arreta pertsonaleko betebeharrak mugatuta, zerbitzua asteburu eta jaiegunetan ere eman ahalko da, balorazioaren arabera
- Ofizialki Eusko Jaurlaritzak hala aitortutakoak hartuko dira jaiegun gisa.

2) Zerbitzuaren intentsitatea

Zerbitzuaren denbora mugak erabiltzaileen beharrezkoen banakako ebaluazioaren arabera ezarriko dira.

Gutxieneko zerbitzu-tartea astero 30 minutukoa izango da. Gehieneko zerbitzu tartea hogeitau ordukoa izango da astean; artikuluko bigarren paragrafoko 1) puntuan jasotako salbuespen kasuetan 28 ordukoa izan ahalko da. Gehieneko kopuru hori malgutasun handiagoz bana daiteke, irizpide profesionalaren arabera beharrezkotzat jotzen bada erabiltzailea etxean geratzea ahalbidetu edo erraz dezaketen zaintza lanak osatzeko edo ordeztzeko.

3) Arreta ordutegiak

Zerbitzuaren ordutegi orokorra malgua da, eta, oro har, 07:30 eta 21:30 artean garatuko da.

Salbuespenez, zerbitzuaren ordutegia ezarritako orduetatik haratago zabaldu ahalko da, balorazio teknikoaren arabera.

- Laguntza pertsonalaren zerbitzuan, ordutegia ezartzerakoan, aintzat hartuko dira eskatzailearen beharrianak eta ordutegi ohiturak.

- Etxeko laguntza eta laguntze sozialen zerbitzuetan, ordutegiak zerbitzuak ematen dituzten langileen ordutegien arabera ezarriko dira.

II. KAPITULUA. ERABILTZAILEAK

7. artikulua. Erabiltzaileak zehaztea:

Oro har, zerbitzu honen erabiltzaileen profilari dagokionez, ohiko etxebizitzan bizitzen jarraitze aldera egunerokotasuneko oinarrizko jardueretan laguntza zerbitzuak aldi batez edo modu iraunkorrean esku hartzea beharrezkoa daukaten pertsonen edo senide taldeen profila da, autonomia galdu edo zaurgarritasun egoeran egotearen ondorioz.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren testuinguruan, etxez etxeko laguntza zerbitzua eskubide subjektibo gisa aitortuta dago eta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuak ezarri bezala, menpekotasun egoeran eta menpekotasun arriskuan dauden pertsonen zuzenduta dago (MBBko 23 eta 24 puntu artekoa).

Horrez gain, honako pertsona edo senide talde hauek etxez etxeko laguntza zerbitzuaren hartzaileak izan ahalko dira:

- Eguneroko oinarrizko jarduerak edo jarduera instrumentalak egiteko laguntza behar duten eta autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten pertsonak.

- Eguneroko oinarrizko jarduerak edo jarduera instrumentalak egiteko laguntza behar duten eta autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten 65 urtetik gorako pertsonak.

- Adingabeak, ezinezkoa baldin bada haien familiek behar duten arreta eta zaintza ematea.

- Pertsonak edo senide taldeak, gehiegizko kargak badituzte, harreman gatazkak badituzte, gizarte egoera ezegonkorak edo gaixotasun fisiko edo psikikoen ondoriozko arazoak badituzte, eguneroko edozein jarduera egiteko laguntza (partziala edo erabatekoa), gainbegiratzea edo babesa behar badute.

- Gaixotasun terminala daukaten pertsonak, horren ondorioz hirugarren pertsona baten laguntza behar badute eguneroko jarduerak egiteko.

- Balorazio teknikoaren arabera zerbitzu honen arreta jasotzeko moduko egoera edo pertsona oro.

8. artikulua. Sarbide betekizunak

Lehenago aipatutako egoeraren batean egoteaz gain, eskatzaileak honako sarbide betekizun hauek ere bete beharko ditu:

8.1 Administrazio betekizunak:

Eskabide datan Lapuebla de Labarcako udalerrian erroldatuta egotea, eta bertan erroldatuta jarraitzea.

Familiako txandakatze egoeran dauden pertsonak betekizun hauetatik salbuetsiko dira.

8.2 Beharizan betekizunak:

- a) Eguneroko oinarrizko jarduerak edo jarduera instrumentalak egiteko laguntza behar izatea.
- b) Etxebizitza horretan bizitzea, etxea erabiltzailearena izan, zein zaintzaile nagusi gisa jarduten duen senide batena izan.
- c) Etxeak erabiltzailea bertan egotea ez eragoztekoa edo nabarmen oztopatzea, eta pertsonarentzat berarentzat zein etxez etxeko zerbitzuko langileentzat arriskurik ez eragitea.
- d) Beharrezkoa bada, etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin batera, aski babes izatea etxean baldintza egokietan jarraitzeko.
- e) Osasun erakundeetan edo osasun eta gizarte erakundeetan etengabeko laguntza behar duen osasun egoera ez izatea.
- f) Kasuan kasuko tratamenduari uko ez egitea, gaixotasun mental bat edo infekzio gaixotasun kutsakorra izanez gero.
- g) Jokabidearen nahasmendurik ez izatea, edo etxez etxeko laguntzaileak arriskuan jar ditzakeen jokabiderik ez izatea.

9. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan ezarritakoaz gain, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileek honako eskubide hauek ere izango dituzte:

- Banakako Arreta Programan ezarritako eduki eta intentsitateari egokitutako zerbitzua jasotzea, menpekotasuna aitortuta daukaten pertsonen kasuan, baita Arreta Plan Pertsonalizatuan ezarritakoa ere, menpekotasuna aitortuta ez daukaten pertsonen kasuan.
- Egitekoen programazioan parte hartzea.
- Egitekoen orriaren kopia bat izatea; bertan zehaztuko dira zerbitzua arautzeko jarduerak eta ordutegi antolaketa (zerbitzuaren maiztasuna eta esku hartze bakoitzean emandako denbora).
- Zerbitzua iraungitzea edo etetea eta zerbitzuan aldaketaren bat eragin dezaketen inguruabarren berri izatea.
- Zerbitzua EAEko edozein hizkuntza ofizialetan jasotzea.

10. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 10. artikuluan ezarritakoaz gain, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileek honako betebeharrak hauek ere izango dituzte:

- Eskubidez dagokion duintasuna erabat errespetatuz tratatzea etxez etxeko laguntza zerbitzuko langilea.
- Zerbitzua aldi baterako etetea ekarriko duten gorabeherak edo inguruabarrak oinarrizko gizarte zerbitzuen erreferentziazko gizarte langileari jakinaraztea, aski denboraz eta, betiere, gutxienez 24 orduko epean, egiaztatutako premiazko kausak salbu.
- Zerbitzua ematen duen enpresari eta oinarrizko gizarte zerbitzuen erreferentziazko gizarte langileari zerbitzuan antzeman daitezkeen balizko anomalien berri ematea.
- Zerbitzuaren prezio osoa edo hobaridun prezioa ordaintzea, salbu eta prezio publikoa ordaintzean hobaria aplikatu behar bada gaitasun ekonomikoa dela medio, etxez etxeko laguntza zerbitzuari aplikatu beharreko prezio publikoak arautzen dituen udal erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorritik.

- Zerbitzuan esku hartzen duten profesionalak errespetuz eta zuzen tratatzea, eta, posible denean, lana erraztea eta haiekin kolaboratzea.
- Zerbitzua jasotzen den bitartean sortutako infekzio gaixotasun kutsagarriak oinarrizko gizarte zerbitzuen erreferentziazko gizarte langileari jakinaraztea, etxez etxeko laguntza zerbitzuko laguntzaileek beharrezko babes neurriak hartze aldera.
- Etxez etxeko zerbitzuko langile laguntzailea zerbitzua ematen ari den bitartean etxean egotea, salbu eta berariazko baimen eta preskripzio teknikoak izanez gero.
- Esleitutako etxeko egitekoak eta egiteko pertsonalak osatzeko beharrezko materialak eta baliabideak etxez etxeko zerbitzuko langileen esku jartzea.
- Gizarte eta ekonomia egoeran aldaketa nabarmenen bat sortuz gero, aski denboraz jakinaraztea gizarte zerbitzuei, kasuan kasuko zerga ordenantzan ezarritako inguruabarretan.
- Une bakoitzean zerbitzua ematen duen profesionalari gainbegiratu beharreko medikazioari buruzko azalpen argi eta eguneratuak ematea.

Artikulu honetan ezarritako betekizunak betetzeko komunikazioak, informazioak eta gainerrako betekizunak berariaz zuzendu beharko dizkio erabiltzaileak kasuan kasuko oinarrizko gizarte zerbitzuko erreferentziazko profesionalari.

Betebehar hauetakoren bat betetzen ez bada, zerbitzua eten edo iraungitzeko prozedura abiaraziko da, erregelamendu honetan araututako prozedurarekin bat etorriz.

III. KAPITULUA. SARBIDE PROZEDURA

1. ATALA. ESKATZAILEAK ESKATZAILEEN ZERRENDAN SARTZEA

11. artikulua. Eskatzaileen zerrenda

Zerbitzua esleitzeko ordena ezartzen duen tresna zerbitzuko eskatzaileen zerrenda da, eta sarbide baremoa aplikatuz lortutako puntuazioaren arabera antolatzen da (I. eranskina).

Aurreko paragrafoan aurreikusitako eskatzaileen zerrendan jasotako pertsonak espedientea berrikusteko eskatu ahalko dute, behar bezala egiaztatuz, inguruabar pertsonalak aldatzearen ondorioz jasotako balorazioa alda badaiteke.

12. artikulua. Zerbitzu eskatzaileen zerrendara sarbidea izatea eskatzea

Erregelamendu honetan araututako etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eskatzaileen zerrendara sarbidea izateko interesdunak alde aurretik eskaera egin behar du horretarako prestatutako inprimaki normalizatuan; eskaera erakunde eskudunera igorri beharko da, eskatzaileak sinatuta eta udalak horretarako gaituta dituen edozein erregistrotan edo administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak aurreikusi bezala aurkeztuz.

Prozesuaren edozein unetan interesdunak bertan behera utz dezake eskaera; hala gertatuz gero, idatziz egin beharko du. Hala jokatzuz gero, espedientea artxibatu egingo da.

Bidenabar, gizarte langileak espedientea artxibatze txostena eman ahalko du eskatzaileak edo bere ordezkariak idatziz eta berariaz uko egin badio.

13. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskatutako zerbitzuak etxeko laguntza zerbitzuak egitea barne hartzen badu edo adingabeak zaindu behar dituzten familiei arreta ematera bideratuta badaude, dokumentazioa eskatzailearen ezkontideari edo izatezko bikotekideari buruzkoa eta etxebizitzan bizi diren gainerako pertsonen buruzkoa ere izan beharko da.

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren fotokopia, edo beste edozein identifikazio dokumentu baliokide.

- Familia liburua, bizikidetzaren unitatean 18 urtetik beherakoak baldin badaude.
- Hala badagokio, menpekotasunaren edo ezintasunaren balorazioa, balorazioa beste autonomia erkidego batean egin bada.
- Txosten medikoa, osasun arazoak izan eta menpekotasunaren edo ezintasunaren balorazioa eskatu behar ez duten pertsonen kasuan.
- Zaindu beharreko pertsona adingabea bada edo ezintasun bat badu, legala edo izatezkoa, ordezkartzaren egiaztatzea (adingabea: familia liburua, guraso eta seme-alaben neurrien dokumentua edo tutore izendapena; ezintasun bat daukaten pertsonak: tutorea esleitzeko epaia edo zaintzaile dokumentua, ereduari jarraiki).
- Egoera ekonomikoari buruzko datuak:
 - Eskaera aurkeztu aurreko lau urteetako ondasun higiezin eta higigarrien gaineko zinpeko adierazpena.
 - Pertsona fisikoaren errentaren zergaren azken aitortzenaren fotokopia, edo, bestela, aitortzenaren egiteko betebeharrak ez dagoela dioen Ogasuneko ziurtagiria (azken hori ez da beharrezkoa izango aitortutako azken ekitaldian zergak Araban ordaindu badira).
 - Egungo diru sarreraren egiaztatzea, edozein kontzeptu dela eta: pentsioak eta gizarte aurreikuspen publikoko prestazioak, pribatuak edo atzerrikoak, nominak, enpresa jardueren etekinak etab.
 - Kapital higiezinaren ondoriozko etekinen diru sarreraren ziurtagiria, egonez gero.
 - Banku posizio eguneratu guztien ziurtagiria, eta kapital higigarriko etekinak.
 - Eskatzaileak Arabako lurraldetik kanpo dituen jabetzen titulartasuna eta katastro balioaren egiaztatzea.
 - Ezarritako prezioa hileroko ordaintzeko erabiliko den banketxea eta kontu korrontearen zenbakia.
 - Gizarte zerbitzuen aburuz interesekoa izan daitekeen beste edozein agiri.
- Eskatzaileak ez badu bere egoeraren balorazioa egiterik nahi edo ez badu fede emateko moduan argudiatzen, bere egoera ekonomikoa aintzat hartzeari uko egiten diola ulertuko da eta, horrenbestez, zerbitzua ordaintzeko ezarritako gehieneko tarifa ordaindu beharko du.
- Administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 8.3 artikulua aplikatuz, herritarrek ez dute aipatutako agiriak aurkezteko betebeharrak izango agiri horiek dagoeneko administrazioaren esku baldin badaude. Horretarako, interesdunek dagokion agiria zein erakundetan eta noiz aurkeztu duten jakinarazi beharko dute. Udal edo foru gizarte zerbitzuek ezin badituzte aipatutako agiriak lortu, interesdunari berriz ere aurkezteko eskatu ahalko diote.
- Eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada edo akatsen bat badauka, eskatzaileari eskaera egingo zaio 10 eguneko epean beharrezko dokumentazioa aurkez dezan edo antzemandako akatsak zuzen ditzan; bidenabar, ohartaraziko zaio horrela jokatzeko ez badu eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko dela.
- Eskatzaileak eta, hala badagokio, bizikidetzaren unitateko gainerako kideek baimena emango diete udalari eta Arabako Foru Aldundiari datuak egiaztatzea edo lortzeko egin beharreko kudeaketak egiteko. Datu horiek eskatzaileak erregelamendu honetan ezarritako betekizunak betetzen dituela egiaztatzea baino ez dira erabiliko eta, hala badagokio, zerbitzua finantzatzeko baliabide ekonomiko eta betekizunak egiaztatzea.
- Datuak ezkutatu edo faltsutzeak zerbitzu eskatzaile izaera galtzea ekar dezake; nolana ere, baliteke bestelako erantzukizunak ere eragitea.

14. artikulua. Izapidetzea

Erabiltzaileen beharrizanen ebaluazioa eta gizarte txostenaren proposamena egitean gizarte zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean jasotako zehaztasunei erreparatuko zaie.

A) BEHARRIZANEN EBALUAZIOA

- Eskatzailearen beharrizanen ebaluazioa, balorazioa eta izapidetzea eskatzailearen etxebizitzari dagozkion udal gizarte zerbitzuen gizarte lan arloko teknikariek egingo dituzte (edo, hala badagokio, etxebizitza ibiltarikoak).

- Udal gizarte zerbitzuetako langile teknikariek dokumentazioa aztertuko dute eta egin beharreko kudeaketa eta jarduketara oro egingo dute honako alderdi hauek aztertzeko:

- Eguneroko oinarrizko jarduerak egiteko laguntza beharrikanak, norbere burua zaindu, jaiki eta ohean sartu, jantzi, oinez ibili, jan, garbitu eta esfinterren kontrola edukitzeari lotutakoak.

- Eguneroko jarduera instrumentalak egiteko laguntza beharrikanak, tartean elikagaiak erosi eta prestatzea, etxebizitza eta sukaldeko tresnak garbitzea, arropa garbitzea, erosketak egitea, dirua kontrolatzea, medikazioa kontrolatzea eta etxe barruko zein kanpoko joan-etorriak.

- Egoera sozio-familiarra, elkarrekin bizi diren pertsonen eta gizarte ingurunearekiko harremana aztertuz, familia eta gizarte sarearen gaitasuna eta eskuragarritasuna eskatzailearen arreta beharrikanen aurrean erantzuteko.

- Etxebizitzaren egoera higie, ekipamendu, bizigarritasun eta irisgarritasun baldintzei dagokienez, laguntza tekniko beharrikanak eta ingurunean duen kokapena.

- Egoera ekonomikoa.

B) GIZARTE TXOSTENA-PROPOSAMENA

Udal gizarte zerbitzuetako gizarte laneko zerbitzu teknikoek Banakako Arreta Programa prestatuko dute, edo bestela, Arreta Plan Pertsonalizatua. Dokumentu horietan honako hau zehaztuko da:

- Zerbitzura sartzeko betekizunak eta eskabideak aurkezteko betekizunak bete diren.

- Hala badagokio, betekizunak betetzetik salbuesteko proposamena, argudiatua.

- Eskatzailearen inguruabar pertsonalak, familiakoak eta gizartekoak, eta, hala badagokio, bizikidetzaren unitatearenak.

- Esku hartzearen onuradunak, egin beharreko zerbitzu mota, asteko egunak eta ordu kopurua, proposatutako zerbitzuaren iraupena eta egitekoak.

- Hala badagokio, salbuespen zerbitzuen proposamen argudiatua.

- Hala badagokio, zerbitzua ezesteko proposamen argudiatua.

15. artikulua. Ebazpena

Eskabidea aztertu eta baloratu ondoren, eta txosten soziala eman eta gero, dagokion proposamen teknikoa prestatuko da, eta erakunde eskudunera igorriko da. Erakundeak ebazpen argudiatua emango du, eskatutako zerbitzura sarbidea izateko eskaera baietsiz ala ezetsiz.

Ebazpena gehienez bi hilabeteko epean eman beharko da eskabidea udal erregistroren batean jasotzen denetik. Epe hori eten egingo da eskabideak zuzendu behar direnean, jakinarazpenetik zuzentzeko betebeharra betetzen den arteko tartean edo, bestela, emandako epea igarotzean edo Arabako Foru Aldundiaren nahitaezko txostena eskatu behar denean, eskatzailearen autonomiaren balorazioari buruzkoa, baita administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako gainerako kasuetan ere.

Aurreko atalean aurreikusitako epea igaro bada eta ez bada berariazko ebazpenik eman, eskabidea bertan behera utzi dela ulertu ahalko da, interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztea baimentze aldera; nolahi ere, ebazteko betebeharrak indarrean jarrai dezake.

Aldeko ebazpenak honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Hala badagokio, eskatzailea zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan jasotzea.
- Prestazioaren esleipena, hauek zehaztuta: zerbitzuaren kostua, iraupena, mota eta intentsitatea, baita onuradunari dagokion ekarpen ekonomikoa ere.
- Halaber, ebazpen proposamenean adierazi behar da zerbitzua edo prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortzeak berekin dakarrela eskatzaileak (eta, hala dagokionean, haren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintza daukanak ere) aitorpenean eragina izan dezakeen aldaketa oro 15 egun natural pasatu baino lehen jakinarazi behar izatea erakunde eskudunari.

Aurkako ebazpenak horretarako arrazoiak azaldu beharko ditu, eta kasu hauetan eman beharko da:

- 9. artikuluan jasotako sarbide betekizunak ez betetzea.
- Eskaera eragin zuten beharrianak eskatzaileak berak edo senideen laguntzarekin edo beste baliabide pertsonal batzuekin zuzen betetzeko aukera dagoenean.
- Zerbitzua ematea beste administrazio publiko baten eskumena izatea, prestazioaren izaera edo eskatzailearen bizilekua dela medio.
- Balorazioaren arabera zerbitzuak arrisku fisikoak edo psikikoak eragin ahal izatea erabiltzaileari zein zerbitzua ematen duten langileei.
- Behar bezala argudiatutako beste kausa batzuk.

Ebazpena legeak ezarritako formalitate eta epeetan jakinaraziko da, eta, haren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da erakunde eskudunaren aurrean, edo zuzenean administrazioarekiko auzien ordena jurisdikzionaletan aurkaratu ahalko da, legez ezarritako epe eta inguruabarretan.

Aldeko ebazpena zerbitzua eman behar duen erakundeari ere jakinaraziko zaio; zerbitzuaren prestazioaren kontratuan jasotako epean eman beharko du zerbitzua.

16. artikulua. Premiazko egoerak

Salbuespen gisa, eta muturreko eta premiazko beharrian kasuak artatu ahal izateko, udal gizarte zerbitzuek zerbitzua berehala eman eta hastea proposatuko dute, eta premiazko prozeduraren arabera izapidetuko da.

Gizarte zerbitzuek, hala badagokie, zerbitzua ematen duen erakundeari jakinaraziko diote zerbitzua premiazkoa dela; erakundeak gehienez 48 orduko epean eman beharko du zerbitzua.

Gehienez 15 egun naturaleko epean izapidetuko da eskabidea, prozedura arruntarekin bat etorritik.

2. ATALA. ZERBITZUAN ONARTUA IZATEA ETA ZERBITZUA JASOTZEA.

17. artikulua. Zerbitzuan onartzea

Zerbitzuan onartua izateko, zerrendaren ordena jarraituko da, eta lortutako puntuazio globala hartuko da kontuan, erregelamendu honen I. eranskinean ezarritako irizpideekin bat etorritik eskabidea aztertu ondoren.

Puntuazio berbera lortu duten eskabideen kasuan, menpekotasunen bat dutenen eskabideak eta menpekotasun arriskuan dauden eskatzaileen eskaerak lehenetsiko dira (MBBko 23 eta 24).

IV. KAPITULUA. ZERBITZUA EGOKITZEA ETA JARRAIPENA EGITEA

18. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa.

Oinarrizko gizarte zerbitzuek etengabeko jarraipena egingo dute zerbitzua onuradunen beharrianetara egokitzen dela ziurtatzeko, beharrezko aldaketak proposatuz eta proposatutako helburuak lortzea onuradunekin batera ebaluatuz; hala, etxe bisitak egiteko premia aurreikusiko da, baita etxez etxeko laguntza langileen aldizkako harremanak ere.

Aldizka ebaluazioak egin ahalko dira onuradunak eskatzen badu, zerbitzua ematen duen erakundeak eskatzen badu edo protokolo eta kontratuetan ezarri bezala.

19. artikulua. Egokitzapen aldia

Zerbitzura sarbidea izan eta hasierako hiru hilabeteetan, ulertuko da erabiltzaileak zerbitzuaren funtzionamendu eta ezaugarrietara moldatzeko egokitzapen pertsonaleko aldian daudela. Arazorik izanez gero, une oro komentatuko dituzte gizarte zerbitzuetako teknikariek edo zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetako profesionalek, eta ondo egokitzea lortzeko beharrezko irtenbideak bilatuko dira.

Erabiltzailearekin batera irtenbide bateratuak aplikatzen saiatu ondoren, erabiltzaileak zerbitzura egokitzeko zailtasunak dituela edo alderantziz gertatzen dela antzemanaz gero, edo zerbitzuak pertsonaren beharrianak zuzen betetzen ez dituela ulertzen bada, egoera aztertu egingo da eta oinarrizko gizarte zerbitzuen txostenaren aurreko proposamena egingo da.

Egindako proposamena erabiltzaileari jakinarazi beharko zaio, eta hark 15 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko.

Alegazioak aztertu ondoren, behin betiko proposamena egingo zaio erakunde eskudunari, eta hark ebazpen arrazoitua emango du. Ebazpenaren arabera pertsona zerbitzutik kanpo utzi behar bada, alternatiba bat proposatuko da, egonez gero.

V. KAPITULUA. ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

20. artikulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea.**20.1. Zerbitzua aldi baterako etetea**

Dagokion espedientea izapidetu ondoren, erakunde eskudunaren ebazpenaren bitartez ebatziko da zerbitzuan aldi baterako etena egitea, interesdunari entzunaldi izapidea eskaini ondoren. Ebazpen hori erabiltzaileari jakinaraziko zaio eta, hala badagokio, zerbitzua ematen duen erakundeari.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua honako arrazoi hauengatik etengo da:

- Erabiltzailea ospitale batean egotea, aldi baterako.
- Erabiltzailea aldi baterako etxebizitzan ez egotea, gizarte baliabide eta osasun eta gizarte baliabide batera jo behar izan duelako.
- Etxebizitzan ez egotea azken zerbitzutik hasita laurogeita hamar (90) egun baino gutxiagoko tartean. Tarte hori egoera berezietan luzatu ahalko da. Erabiltzailea familiaren txandakatze egoeran baldin badago, tarte hori luzatu egingo da, txandakatze epeak kontuan hartuta.
- Erabiltzailearentzat 10. artikuluan ezarritako betekizunen bat betetzen ez bada eta iraungitze kausa ez bada.
- 9. artikuluan ezarritako betekizunen bat aldi baterako galtzea.

Horretarako, aldi batez etxebizitzan ez egoteagatik zerbitzua eteten denean, erabiltzaileek egoera hori idatziz eta gutxienez 7 eguneko aurrerapenaz jakinarazi beharko dute, larrialdi egoeretan, premiazkoa izateagatik epe hori betetzea ezinezkoa denean salbu (behar bezala frogatu behar da).

Etxez etxeko laguntza zerbitzua jasotzen duen pertsona batek aldi batez zerbitzua erabiltzeari uzten badio eta etenaldiak ondoz ondoko 7 egun natural baino gehiago irauten badu, ez du ordaindu beharko prezio publikorik. Horretarako, erabiltzaileek idatziz jakinarazi beharko dute

zerbitzua jasotzeari utziko diotela, etenaldia hasi baino 7 egun lehenago gutxienez, larrialdia dela-eta ezinezkoa denean izan ezik (behar bezala frogatu behar da). Zerbitzua ondoko ondoko 7 egun naturalez baino egun gutxiagoz erabili ez bada, esleitutako prezio publikoa ordaindu beharko da.

20.2. Zerbitzua iraungitzea.

Dagokion espedientea izapidetu ondoren, zerbitzuko bajak erakunde eskudunaren ebazpenaren bitartez ebatziko dira, interesdunari entzunaldi izapidea eskaini ondoren. Ebazpen hori erabiltzaileari eta zerbitzua ematen duen erakundeari jakinaraziko zaie.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua honako arrazoi hauengatik iraungiko da:

- Erabiltzaileak edo haren lege ordezkariak idatziz uko egitea.
- Zerbitzua emateko ebazpenean aurreikusitako prestazio aldia bukatzea.
- Erabiltzailea hiltzea
- Erabiltzailea beste udalerrri batera joatea, familiaren txandakatze kasuak direnean salbu.
- Onuraduna etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin bateragarria ez den beste programa edo baliabide batean sartzea.
- Zerbitzuaren prestazioa sorrarazi zuen beharizan kausa desagertzea.
- Zerbitzua emateko aintzat hartu diren datuak faltsutzea edo ezkutatzea.
- Zerbitzua lortzeko eskatutako betekizunen bat modu iraunkorrean galtzea.
- Zerbitzuaren jarraipena egiteko eska daitekeen dokumentazioa ez aurkeztea.
- Gizarte eta ekonomia egoera aldatzeari buruzko informazioa ez aurkeztea 30 eguneko epean.
- Aldi baterako etena bukatu ondoren etxebizitzara ez bueltatzea.
- Zerbitzua ematen duten langileei eraso fisiko edo psikologikoa egitea.
- Erregelamendu honetan erabiltzaileentzat xedatutako betebeharrak etengabe urratzeagatik (ordainagiriak epez kanpo ordaintzea, behin baino gehiagotan ez ordaintzea, etab.).
- Arrisku fisikoak edo psikikoak egotea erabiltzailearentzat zein zerbitzua ematen duten langileentzat, udal zerbitzu teknikoaren balorazioa eginik.
- Behar bezala argudiatutako beste arrazoi batzuk.

Iraungipen ebazpenaren ondoren erabiltzaileak berriz ere zerbitzua jasotzeko asmoa agertuz gero, beste eskabide bat aurkeztu beharko du, eta araudi honetan ezarritakoaren arabera izapidetu beharko da.

Iraungi ondoren erabiltzaileak zerbitzuko zenbait ordainketa egin gabe baditu, berriz ere zerbitzua eman aurretik ordaindu gabeko zenbatekoak ordaintzeko eskatuko zaio.

VI. KAPITULUA. ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

21. artikulua. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoa

Erabiltzaileak ordaindu beharreko etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezioa une bakoitzean indarrean dagoen zerga ordenantzak zehaztuko du.

Ez zerbitzua ematen duten langileek, ez enpresa esleipendunak ez dute ordainketa osagarri-rik edo dohaintzarik onartuko, aurreko paragrafoan ezarritakoaz gain. Enpresa esleipendunak betebehari hori betetzea zainduko du.

22. artikulua. Finantzaketa

Zerbitzuen finantzaketa hauen ardura izango da:

- Onuradunak zerbitzuaren finantzaketa parte hartu beharko du, batetik, erakunde eskudunaren ebazpenean onuradunaren gaitasun ekonomikoa kontuan hartuta ezarritako zenbatekoa

ordaintzeko konpromisoa sinatuz, ezinbestekoa baita zerbitzua jasotzen hasteko, eta, bestetik, kasuan kasuko zerga ordenantzak horri dagokionez ezartzen duena betez. Administrazio Publikoak hartuko du bere gain orduko prezioari onuradunak ordaindu beharreko orduko ekarpena kentzean geratzen den zenbatekoa, kasuan kasuko zerga ordenantzan ezarritakoaren arabera kalkulaturakoa.

23. artikulua. Zerbitzuko erabiltzailearen ekarpena

Araudi honetan araututako zerbitzuen erabiltzaileak zerbitzuaren prezio publikoa ordaindu beharko du; prezioa erabiltzailearen beraren gaitasun ekonomikoa aintzat hartuz kalkulaturako da, dagokion zerga ordenantzan ezarritako inguruabarretan.

Erabiltzailearen ekarpena kasuan kasuko zerga ordenantzan jasotako elementuen arabera finkaturako da.

Eskabidea artxibatzea edo zerbitzua iraungitzea ekar dezake gaitasun ekonomikoen inguruko datuak faltsutzeak edo ezkututzeak, zerbitzua dagoeneko emanda badago; nolahi ere, babiliteke gertaera horietatik bestelako erantzukizunak ere eratorzea. Administrazio eskudunak erabiltzaileari laguntzaren bat edo prezioan hobariren bat eman badio, itzultzeko prozedura abiaraziko da.

Erabiltzaile bakoitzaren banakako ekarpena berrikusi egin beharko da, ofizioz edo erabiltzaileak edo haren ordezkariak eskatuta, inguruabarrak edo betekizunak edozein modutan aldatzen direnean, kasuan kasuko zerga ordenantzan ezarritako inguruabarretan.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Etexez etxeko laguntza zerbitzuaren bitartez erabiltzailea etxean eta ingurune komunitarioan geratzea bultzatzea dezaketenez esperientzia, jarduera eta prestazio askotariko eta berritzaileak jar daitezke martxan.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudiaren laburpen bat prestatuko da, erabiltzaileei emateko.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Arlo honetako udal erakunde eskudunak irizpideen eskuliburu bat prestatuko du; hartan zehaztuko da erabiltzaile bakoitzaren zerbitzuaren prestazio aldia, 7. artikuluko 2. atalean ezarritako mugen barruan, eta oinarritzko gizarte zerbitzuko profesionalek aplikatuko dute. Eskuliburua erabiltzaileen esku ere egongo da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrak gabe geratzen dira erregelamendu honek xedaturikoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko mailako arau guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau ALHAOn argitaratu eta hamabosgarren egunean sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA

SARBIDE BAREMOA

Sarbide baremoak eskatzaileen zerrenda antolatzeko irizpideak eta zerbitzua jasotzeko lehenentasuna ezartzen ditu, gizarte diagnostikoaren arabera.

Eskatutako zerbitzuak pertsona bati baino gehiagori eragiten badie sarbide baremoaren ondorioetarako, arreta premiako egoera ahulenean dagoen eskatzailearen egoera soilik hartuko da kontuan, egoera ekonomikoaren dimentsioan salbu; kasu horretan bizikidetzaren unitateko kide guztien hileko gaitasun ekonomikoa aztertuko da.

BAREMOAREN EGITURA:

DIMENTSIOAK	PUNTUAZIO TARTEAK
Egunerokotasuneko jarduerak egiteko laguntza behar du (oinarrizko jarduerak)	0-30
Egunerokotasuneko jarduerak egiteko laguntza behar du (jarduera instrumentalak)	0-10
Gizarte laguntza eta bizikidetzaren egoera	0-30
Ostatu edo etxebizitza egoera	0-10
Egoera ekonomikoa	0-20
Guztira	0-100

I. EGUNEROKO JARDUERAK (OINARRIZKOAK) EGITEKO LAGUNTZA BEHAR IZATEA

Eguneroko oinarrizko jarduerak egiteko behar duten laguntza maila aztertzean datza (jan, jantzi, garbiketa pertsonala etab.), erabiltzailearen autonomia mailari eusteko eta sustatzeko eta bere ingurunean geratu ahal izan dadin, bizi kalitate maila onarekin.

Balorazioa egite aldera, MBBn lortutako puntuazioa erabiliko da, honela:

LAGUNTZA BEHARRIZANA - BAREMOA	PUNTUAU	
Baloraezinak	0	<input type="checkbox"/>
MBB 0-22 puntu	5	<input type="checkbox"/>
MBB 23-49	10	<input type="checkbox"/>
MBB 50-74	20	<input type="checkbox"/>
MBB 75-100	30	<input type="checkbox"/>
EGUNEROKOTASUNeko JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHARRIZANAREN PUNTUAZIOA (OINARRIZKO JARDUERAK) (Gehienez 30 puntu)		<input type="checkbox"/>

II. EGUNEROKOTASUNeko JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHAR IZATEA (JARDUERA INSTRUMENTALAK)

Jarduera instrumentalak egiteko behar duten laguntza maila aztertzean datza (tresna elektrikoak erabiltzea, erosketak egitea etab.), erabiltzailearen autonomia mailari eusteko eta sustatzeko eta bere ingurunean geratu ahal izan dadin, bizi kalitate maila onarekin.

Balorazioa egiteko baremo hau erabiliko da:

JARDUERA INSTRUMENTALAK - BAREMOA	PUNTUAU	
Tresna elektrikoak erabiltzea (garbigailua, mikrouhin labea, sukaldea, berogailua) eta interkomunikazio sistemak (irratia, telefonoa, telebista).	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Etxeko lanak (hautsa kentzea, erratzarekin garbitzea, ontziak garbitzea, ohea egitea, oheko arropa aldatzea, lisatzea, xurgagailua pasatzea, etab.)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Erosketak (elikagaiak, medikazioa, arropa, tresna elektrikoak erostea, etab.)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Elikagaiak prestatzea (janaria prestatzea, prestatutakoa berotzea)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Ingurunean ondo moldatzea (garraio publikoa erabiltzea, udalerrian egunez/gauez orientatzea)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 3	<input type="checkbox"/>
Kudeaketa ekonomikoak, administrazioak eta osasun arlokoak (dirua ateratzea, ordainagiriak kudeatzea, medikuarenera joatea, etab.)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 3	<input type="checkbox"/>
EGUNEROKOTASUNeko JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHARRAREN PUNTUAZIOA (JARDUERA INSTRUMENTALAK) (Gehienez 10 puntu)		<input type="checkbox"/>

III. GIZARTE LAGUNTZA ETA BIZIKIDETZA EGOERA:

Pertsonak bere beharrak asetzeko duen laguntza maila jakitea da helburua, eta horretarako aldagarri hauek aztertzen dira:

– Elkarbizitzaren egoera: bakarrik edo beste norbaitekin/norbaitzuekin bizi den Beste nagusi batzuekin (senideak edo lagunak) edo beste lagun edo senide batzuekin batera bizi den.

– Sare informala izatea, eskuragarri izatea eta irisgarri izatea (senideak edo lagunak) eta sare horrek emandako babes motak.

Balorazioa egiteko baremo hau erabiliko da:

GIZARTE ETA FAMILIAREN BAREMOA	PUNTUAK	
1. Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona, edo babesgabetasun/abandonu egoeran dauden adingabeak: tratu txar fisiko edo psikikoaren egoera, abusu ekonomikoa, abandonu egoera eta oinarritzko arretako arduragabekeria larria.	30	<input type="checkbox"/>
2. Gizarte edo familiaren laguntzarik gabe bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona: horrelakorik ez duelako, edo ohiko zaintzaileak ezin diolako arretarik eskaini arazo objektibo bat dela medio, edo familia desegituraketa larria edo gatazka arriskua dagoelako. /Arrisku egoeran dauden adingabeak dituzten familiak.	25	<input type="checkbox"/>
3 Bakarrik bizi den pertsona, gizarte edo familia babes sare oso txikia duena; behar duen arretari dagokionez, ematen dioten babes puntuala ez da aski. / Karga gehiegi edo gizarte egoera ezegonkorak dituzten familiak	15	<input type="checkbox"/>
4 Bakarrik bizi den pertsona (edo ezintasun edo desgaitasunen bat daukan pertsona batekin), gizarte edo familia babes sarea du, babesa ematen diona, baina ez da aski behar duen arretari dagokionez.	10	<input type="checkbox"/>
5 Beste norbaitekin bizi den pertsona (mendetasunik gabeko pertsona), gizarte edo familiaren babes sarea duena, baina ez da aski behar duen arretari dagokionez.	5	<input type="checkbox"/>
6 Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona, sarbide errazeko eta eskuragarri dagoen gizarte edo familiaren babes sarea duena.	0	<input type="checkbox"/>
GIZARTE ETA FAMILIA MAILAKO EGOERAREN PUNTUAZIOA (Gehienez 30 puntu)		<input type="checkbox"/>

IV. OSTATU EDO ETXEBIZITZA EGOERA

Ostatu edo etxebizitzaren ezaugarriak aztertzean datza, baldintzagarri izan daitezkeelako erabilzailea modu autonomoan moldatzeko, ingurunea kontrolatzeko, aukeratzeko gaitasunean, baita bertan laguntza edo babesa jasotzeko ere.

Aintzat hartu beharreko aldagaiak irisgarritasuna, bizigarritasuna eta ekipamendua dira, baremo honen arabera:

BAREMOA OSTATU EDO ETXEBIZITZA EGOERA			
IRISGARRITASUNA		PUNTUAK	
Eraikinaren kanpoaldea	Ez du sarbide arazorik	0	<input type="checkbox"/>
	Eskailerak jaitsi edo igo behar ditu edo arkitektura oztoporen bat gainditu etxebizitzara iristeko // Hirigunetik urrun dago, oinarritzko baliabideetara iristeko zailtasunekin	1	<input type="checkbox"/>
B. Eraikinaren barruan	Ez du sarbide arazorik.	0	<input type="checkbox"/>
	Atarian eskailerak ditu igogailura edo etxebizitzara iristeko, eta ez dago eskailerak saihesteko sistemarik. // Ez du igogailurik	1	<input type="checkbox"/>
C. Etxebizitzaren barrualdea	Ez dago arkitektura oztoporik	0	<input type="checkbox"/>
	Arkitektura oztopoak daude, mugikortasuna eta ondo moldatzea oztopatzen dute; ez dago egokitzapen edo segurtasun neurririk	2	<input type="checkbox"/>
IRISGARRITASUNA, GUZTIRA (A+B+C)			<input type="checkbox"/>

BIZIGARRITASUNA		PUNTUAK	
Ez du bizigarritasun arazorik.		0	<input type="checkbox"/>
Ez da mantentze lan zuzena egin.		1	<input type="checkbox"/>
Egitura arazoak ditu (hezetasuna, sukaldetik, komunik ez; espazio gutxi; itoginak; instalazio elektriko eta koimun instalazio eskasa)		3	<input type="checkbox"/>
BIZIGARRITASUNA, GUZTIRA			<input type="checkbox"/>

EKIPAMENDUA			PUNTUAK	
	BADAGO	BADABIL		
Sukaldea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Berogailua/termoa/galdara	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Berokuntza	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Garbigailua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Hozkailua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Telefonoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Oinarrizko ekipamenduak aipatutako elementu guztiak ditu, eta ongi funtzionatzeko moduan daude.			0	<input type="checkbox"/>
Gutxienez 4 elementu ditu, edo elementu guztiak ditu baina baten bat zerbitzutik kanpo dago, baina konpontzeko aukerarekin.			1	<input type="checkbox"/>
Oinarrizko ekipamenduko gutxienez 4 elementu ditu, edo baten bat zerbitzutik kanpo dago eta ezinezkoa da erabiltzaileak konpontzea edo ordeztea.			3	<input type="checkbox"/>
EKIPAMENDUA GUZTIRA				<input type="checkbox"/>
ETXEBIZITZA EGOERAREN PUNTUAZIOA (Gehienez 10 puntu)				<input type="checkbox"/>

V. EGOERA EKONOMIKOA

Egoera ekonomikoa aztertzeko familiaren hileko gaitasun ekonomiko kalkulatu hartuko da kontuan, zerga ordenantzan ezarritako inguruabarretan. LGSren % 181,70tik behera (1.500. €) 11 tarte ezarri dira, eta mailaka puntuatuko dira:

FAMILIAREN HILEKO EGOERA EKONOMIKOA BAREMOA	PUNTUAK	
LGSren %60,57era arte	20	<input type="checkbox"/>
LGSren %60,58 –%72,68	19	<input type="checkbox"/>
LGSren %72,69 –%84,79	18	<input type="checkbox"/>
LGSren %84,80 –%96,91	16	<input type="checkbox"/>
LGSren %96,92 –%109,02	14	<input type="checkbox"/>
LGSren %109,03 –%121,13	12	<input type="checkbox"/>
LGSren %121,14 –%132,25	10	<input type="checkbox"/>
LGSren %132,26 –%145,36	8	<input type="checkbox"/>
LGSren %145,37 –%157,47	6	<input type="checkbox"/>
LGSren %157,48 –%169,59	4	<input type="checkbox"/>
LGSren %169,60 –%181,69	2	<input type="checkbox"/>
=/>%181,70 LGS	0	<input type="checkbox"/>
EGOERA EKONOMIKOAREN PUNTUAZIOA (Gehienez 20 puntu)		<input type="checkbox"/>

Lapuebla de Labarca, 2018ko irailaren 10a

Alkatea

MAIDER MURILLOTREVIÑO